

@@@AGINDUA, 2011ko irailaren 28koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa egiteko dena. @ @ @

Sail honetan goi-kargudunaren idazkariaren lanpostu bat hutsik dagoenez, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.d) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak aldeko irizpena eman ondoren, sail honek erabaki du agindu honen eranskinean adierazten den lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia egitea. Hona hemen deialdiaren

## OINARRIAK

Lehenengoa.- Eranskinean eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten karrerako funtzionarioek eska dezakete agindu honen bidez iragartzen den lanpostua.

Bigarrena.- Parte hartu nahi dutenek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak, eta bertan zehaztu beharko dituzte euren datu pertsonalak eta gaur egun duten destinoa. Eskabideak aurkezteko epea hamabost egun baliodunekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Hirugarrena.- Izangaiek, idazkiarekin batera, curriculum vitae-a aurkeztu beharko dute, eta bertan datu hauek jasoko dituzte:

- a) Titulu akademikoak.
- b) Administrazioan eta, hala badagokio, enpresa pribatuan betetako lanpostuak.
- c) Egindako ikasketa eta ikastaroak, dakizkiten hizkuntzak eta euren ustez adierazgarri izan daitezkeen bestelako merezimenduak.

Izangaiek, eskabidearekin batera, eskatzen diren betekizunei eta aurkeztutako merezimenduei buruzko agiriak aurkeztu beharko dituzte. Halaber, argitalpenak, txostenak edota egokitzat jotako beste edozein agiri ere aurkeztu ahal izango dituzte.

Laugarrena.- Deialdi hau Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren aginduz ebatziko da, eta ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik, hilabeteko epean.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean. Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da errekurtsoak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 28a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,  
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

## ERANSKINA

Deialdiko lanpostua:

- Izena: goi-kargudunaren idazkaria (520010 kodea, 70 dotazioa).
- Lekua: Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza
- Lantokia: Vitoria-Gasteiz.
- Kidegoa: C1/D1.
- Lanpostu-mailako osagarria: 18.
- Berariazko osagarria: VI-A.
- Hizkuntza-eskakizuna: 2.
- Derrigortasun-data: 1994-03-31.

Lanpostuan aritzeko betekizunak:

C1 edo D1 kidegoetakoa izatea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioen Kidegoko edo Administrazio Laguntzaileen Kidegoko karrerako funtzionarioa izanik, jarduneko zerbitzuan, zerbitzu berezietan eta seme-alabak zaintzeko eszedentzian egotea.

Halaber, aipatutako kidegoetako funtzionarioak nahitaezko eszedentzian, beste administrazio publiko batean lanean, eginkizunez gabetuta edo borondatezko eszedentzian badaude, jarduneko zerbitzura itzuli ahal izango dira prozedura honen bidez, baldin eta egoera horietan egoteko epea betea badute

Urtebeteko edo bi urteko lan-esperientzia izatea, hurrenez hurren, Administrazioen Kidegoari edo Administrazio Laguntzaileen Kidegoari dagozkion jardueretan.